

B

BARREN

TOKIKOM




Lasterketa bat baino gehiago

Mugertza krosa



Aprobetxa ezazue kanpoan dugun portxea



KARAKATE
jatetxea - restaurante

ELGOIBAR

Pol. Olaso, Olasope 1 - Tel.: 943 741 244
karakatejatetxea@hotmail.com

KARAKATE jatetxea zabalik!!

- ◆ Eguneko Menua
- ◆ Menu Bereziak
 - Aste egunetan: 18 €
 - Aste buruetan: 23 €
- ◆ Oilaskoak erretzen ditugu bertan jateko zein eramateko
- ◆ Karta
- ◆ Arraina eta haragiak parrillara
- ◆ Gosariak
- ◆ Bokatak
- ◆ Razio eta Kazuelitak



Mugertza kroseko oroitzapenak

1943an ekin zion Elgoibarrek urte sasoi honetan kro-
sa antolatzeari. Club Deportivo Elgoibarrek bultzatuta
hasieran eta Ego-Toki elkarteak antolatuta gero, Juani-
to Mugertza herriko semearen omenez eman zitzaion
hasiera lehiaketari, eta azken urteotan Mintxeta Atletis-
mo Taldearen lan paregabeak eman dio jarraipena. Ur-
tez urteko lanak ospe internazionala eman dio kros ho-
ni, eta maila altueneko korrikalariak hartu dute parte
bertan.

Aurtengo korrikalari zerrenda ikusita ere, ez dira as-
ko izango maila honetako lasterketa antolatuko dute-
nak! Oroitzapenen kutxa zabalduz, nire haurtzaroko
esperientzietan oso toki berezia du egun honek. Izan
ere antolakuntzatik gertu nabilela-eta, zorteduntzat
nuen nere burua. Aitak izaten zuen kroseko gorabe-
herak mikrofonoz zabaltzeko ardua; Lerungo aldale-
kuen gainean eraikitzen zuten dorretik hitz egiten
zuen, eta ikuspegi paregabea izaten nuen handik: fut-
bol zelai atzekaldeko bidetik ziztu bizian pasatzen zi-
ren; San Pedro fabrikatik irteten ikusten genituen; fut-
bol zelaira sartzeko salto hura bertan genuen; laster-
kariak taberna paretik pasatzen zirenean sortzen zen
giro bero eta zaratsua ederki somatzen zen; John
Ngugiren korrika estilo baldarra eta Kipkoech-en arin-
tasuna ezinhobeto nabarmentzen ziren han goitik...

Goizean goiz jaiki eta mikrofono eta kableak hartuta
joaten ginen Iriondotarrak, batzuetan euripean, elur-
pean bestetan, hotz galantakin askotan. Laster-
keta aurreko egunean egiten zitzaien udaletxeko
harreran ere, han sartzen nintzen aitaren atzetik
korrikalariari, telebistan agertzen ziren izar
haiei, eskua emateko. Eta, gaur egun Ego-
Tokira joaten naizenean bertan ikusten
ditut eskua eman nien irabazleetako as-
ko eta izenez ezagun zaizkidan ugari;
lokatzartean korrika batzuk, saria jaso-
tzen beste batzuk, herritar ezagunen
artean besteak, elurpean eta kami-
seta hutsean lasterka norbait, eta
txuri beltzeko argazkietan gehienak.
Gorputzak dardara egiten dit eta oi-
lo-narrua sortzen dit oroitze hutsak.

Garai haietako esperientziak nire
barruan dirau, eta aurrean ere Mintxe-
tara joanez berritzeko asmoa daukat; mi-
krofonoa ez bada ere txorizo bokadilloa
eskuan daukadala.

Iosu Iriondo



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Oroitzapenen kutxa zabalduz,
nire haurtzaroko esperientzietan oso toki berezia du egun honek”**

Haurreskola

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Urtarrilaren 27ra arte

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Arnaldorenn aldeko Kontzertuko DVDa eskuragarri!

Oreka TX, Ken 7, Esne Beltza, Zea Mays, Ion Gurrutxaga, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Asier Serrano, Napoka Iria, Kerobia, Gose!

Arnaldoren alde lehen mailako musika-riek parte hartu zuten eta horren gogoangarria izan zen kontzertuaren emaitza DVD formatu profesionalean eskuragarri daukagu jadanik! Soilik 500 aleko edizio mugatuan!

Opari, oroigarri eta laguntza ezinhobea Arnaldoren askatasuna aldarrikatzen jarraitzeko.

Urtarrilaren 22an Mugertza krosean jarriko ditugu lehen aldiz salgai 10 euroko prezioan, Mintxeta kanpokaldean egongo den postu batean.

Oraingoan ere zuen laguntza behar dugu. Eskerrik asko!

Arnaldo Askatu Herri Ekimena

Atez ate

Idatzi honek atez atekoaren inguruko aurreko asteko eskutitzari erantzutea du helburu.

Usainaren kontua. Antzuolan bizilagunek portaletik "zentzuzko" distantzia batera ezarri zituzten zintzilikarioak. Orain portaletik gertuago nahi dituzte, usainarena exajerazioa da, beraz.

Intimitate urraketa? Erosketak egitean produktuak ezkatuz ibiltzen al zara besteek zer kontsumitzen duzun ez ikusteko? Ez ditzagun paranoia kolektibo eta faltsuak sortu, mesedez.

Etxeko espazio faltaren inguruan, ez dago aldaketa handirik gaur egun birziklatzen duen pertsona ororentzat. Poltsa bat gehiago sartzea bakarrik da, errefusarena (aspiragailuko zaborra, zigarro puntak...), hau da, birziklatu ezin dena, eta oso tamaina txikikoa da. Lekua edonork du, borondatea beste gauza bat da.

Dudarik gabe, sistema garbiagoa da, erraustearen alternatiba baino. Honek sortutako aire zikina eta kudeatu beharreko errausteko toxikoak dira zikintasuna, eta ezin da konparatu atez atekoarekin, izan ere, %85 birzikla-

tzen denez, zabor gutxi sortzen da, gehiena hondakin bihurtzen delako, hots, berriz ere lehengai.

Prezio kontua ere ezin da erraustegiarenarekin konparatu. Biltze fasea garestiagoa da, lanpostuetan inbertitzen delako, baina ondorengo tratamenduak merketu egiten du, erraustegiaren kostua izugarria baita. Hemen garestia atez atekoak ez ezartzea izango litzateke. Erraustegiak 21 urtetarako hipotekatu-ko du Gipuzkoa.

Ditugun edukiontzia nahikoa direla eta birziklatzea ondo dagoela esatea guztiz kontraesanekoa da, zaborraren %40 bakarrik birziklatzen baitugu Gipuzkoan, inguruko probintzietako tasarik altuena.

Herria iturri aniztatetik informa dadin animatzen dut (kontuz Vocento taldearekin), irizkiak eraiki aldera, eta ez aurreiritziak.

A.O.C

KROSAREN BESTE PROTAGONISTAK



Urteroko zita dauka Elgoibarrek. Atletismoa gustuko dutenek ez ezik, gainontzekoek ere hartuko dute domekan Mintxetarako bidea. Garai batean ere hala gertatzen zen; inguruko herrietatik oinez ere, makina bat lagun etortzen ziren eta, krosa ikustera. Dagoeneko prest dago dena. Hanka luzedun kanpoko aurpegi bat baino gehiago ere ikusi dugu honez gero kalean zehar bueltaka. Hemen dira beraz korrikalariak, prest dute ibilbidea, antolakuntzakoei hasi zaizkie kirioak dantzan... Domekan ezagunenei begira egongo gara denok. Gaur, beste batzuk dira, gure krosetako protagonistak.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Domekan dena ondo irteteko makina bat lan egin behar izan dute batzuk aurretik, eta domekan bertan ere, ez da egin beharrik faltako. 85.000 euroko aurrekontua duen lasterketa, ez da nolanhikoa. Eta domekan podiumera gutxi batzuk igoko diren arren, antolatzaileek esandakoaren arabera, Juan Mugertza Krosa ez da lasterketa soil bat eta askok merezi dute txapela.

Herriak bizi duen lasterketa da krosa antolatzaileen iritziz, eta karrera iritsi aurreko egunetan erraz somatu daiteke hori. Korrikalariak kaleak margotzen dizkigute. Hotelari kolore berezia emanez, jakine-

koa da lasterketa laster dena. Baina eguna iritsitakoan ere, giroa ez zaie soilik antxintxika diharduenei zor. Ondo gogoan izango baitu garai hartako Lerunera joandako askok Angelo Iriondoren "Corredor doblado, corredor eliminado" esaldi ezaguna ere.

Zer esanik ez, txikiaren ilusioari dagokionean. Papera sinaduraz bete dutela itzuliko dira etxera bat baino gehiago. Eta gogotsuenek gainera, aurrez euren krosa ere egingo dute. Inoiz, eurei ere umeek sinadurak eskatuko dizkietelakoan.

Garbi dago; antxintxika batzuk egiten dute, baina, krosa, askoren emaitza da.



MARIA ARRIETA, Mintxetako Korrikalari infantila

“Lagunak ere etortzen dira ikustera, beraz, berezia izaten da”

Noiz hasi zinen korrika? Nork animatuta?

Orain dela sei urte hasi nintzen. Zazpi urte nituen eta gehiegi ez nuen ezagutzen atletismoa, baina amak esan zidan Mintxetan atletismo talde bat bazegoela, eta horrela hasi nintzen.

Inoiz egin duzu korrika krosetan?

Bai, joan den urtean egin nuen lehen aldiz; alebinetan, eta aurten infantiletan egingo dut korrika.

Mugertza krosaz gain, beste makina bat lasterketatan ere arituko zara, ezta? Zeinetan?

Bai, Lasartekoan, Iruneoan, Gipuzkoako

bi txapelketetan ere hartu dut parte dagoeneko. Inguruak ezagutzeko ere balio du azken batean. Joan den asteburuan adibidez, Eibarren egin genuen korrika.

Elgoibarkoa berezia da, halere? Zergatik?

Bai. Kanpoko jende asko etortzen da, eta ezagun askok egiten dute korrika. Eta gainera, hemen lagunak ere etortzen dira ikustera, beraz berezia izaten da.

Zuek ere hartzen duzue parte krosaren prestaketan?

Bai, baina lehen orain baino gehiago. Orain nagusiek jarduten dute prestaketan

bereziki.

Eta korrikalari ezagunekin egoteko aukerarik izaten duzue?

Bai. Eurei sinadurak eskatu izan dizkiegu eta beraiekin argazkiak ere atera genituen iaz.

Nagusitzen zoazen heinean, korrika egiten jarraitzeko asmoa daukazu?

Bai, oraingoz bai behintzat.

Inoiz ikusiko zaitugu orduan, profesionalen krosetan?

Ez, ez dut uste. Baina beno, nagusiagoen mailan bai, behintzat.

JOSE LUIS DIEZ eta GERARDO DE PEDRO, Mintxeta atletismo taldeko kideak

“Kirola baino askoz gehiago da hau; jai bat ere bada”

11 urte bete dira atletismo taldeak krosa antolatzeko ardura hartu zuenetik. Balorazio ona?

Positiboa. Gainera aurten, kategoriaz ere igo dugu, maila europearrean sartu gara, eta hori ona da. Urtez urte kategoriaz mantendu edo igotzen dihardugu, eta hori seinale ona da.

Lana ere majo egin behar izango zenuten ba, 11 urte hauetan.

Bai, dudarik gabe.

Zein izaten da zuen lana? Zer dago egiteko, urtero, dena horren ondo joan dadin?

Dena prestatzea. Izatez, urte osoa ematen dugu honetan. Bizi ere Mintxetan bizi gara ia. Baina bereziki irailetik aurrera jartzen gara krosari begira; Gau-Krosa pasatakoan. Denetik egin behar izaten da. Korrikalariak lortu, ibilbidea prestatu, batekin eta bestearekin hitz egin, komunikabideekin egon, dirua lortu... Ez da lan erraza. Eta gainera, dena esan beharra dago: Egotokik maila altuan laga zuen krosa, eta horri erantzun beharra dago; ardura handia da hori.

Eta zein izaten da lanik gogorrena?

Dirua lortzea. Are gehiago egungo krisi ekonomikoa kontuan hartuz gero. Baina harrigarria eta eskertzekoa da elgoibartarrek nolako babesa eskaintzen dioten krosari. Ez dugu aurpegi txar bakar bat ere jaso inoiz, eta kontrara, animoak baino ez dizkigu ematen jendeak, gu, eurengana diru eske goazenean. Baina beno, hala ere, badakigu eskatzen bakarrik ezin dugula egin, egin nahi duguna, eta poliki-poliki hasi gara dirua lortzeko ekintzak antolatzen ere. Hor daude Gau-Krosa, hil bukaerako txosna...

Eta eguna bukatutakoan, poza ala tristura, zer sentitu ohi duzue?

Poza. Poz handia. Elkarri besarkada handi bat eman eta trankildu egiten gara ikusitakoan dena ondo irten dela. Lasaitasuna eta poz handia batzen zaizkigu beste denak etxera joaten direnean.

Traturik izaten duzue zuek korrikalariekin?

Bai, asko gainera.

Entzuna da oso Elgoibarko krosa, gertuko tratuarengatik. Itxuraz oso gustura egoten



omen dira korrikalariak Elgoibarren. Zuek ere izango duzue horren erru pixkat.

Egia esan, korrikalariak oso gustura etortzen dira Elgoibarrera eta guztiak esaten dute Elgoibarkoa, gainontzeko krosen aldean desberdina dela. Ez dela karrera soil bat. Sortzen den giroa, edo herriak korrikalariak nola zaintzen dituen nabarmentzekoa da. Hori ez da horrela izaten beste leku askotan.

Domekarako azken deialdia egiterik nahi duzue?

Bai. Jendea animatu nahi dugu. Mintxetara igo eta korrikalariak animatu ditzatela herri-tarrek. Ez dezala inork krosa kirol soil moduan ikusi. Kirola baino askoz gehiago da hau; jai bat ere bada, eta hori domekan nabarmen geratuko dela uste dugu. Mendaroko txaranga ere badator giroa animatzen. Harrigarria da herriak zenbat laguntzen digun krosaren antolakuntzan, eta krosa ikusten ere gogotsu eta animoso espero dugu jendea.



ANGELO IRIONDO, Kroseko esataria 1963tik 1993ra bitartean

**“Informadorearena baino gehiago,
animadorearen lana izan da nirea”**

Zer izan da zuretzako krosa?

Niretzat krosa, herriko beste ekintza bat izan da. Garai batean ez zegoen jende asko euskaraz jendaurrean berba egiteko prest, eta batean eta bestean ibili izan naiz. Xake biziduna zela, Morkaikok antolatutako Finalista Eguna zela San Pedron, edo Iksatolako krosa plazan... ideia gehiegirik izan gabe, batean eta bestean jardun izan nuen. Krosa horietako bat izan zen niretzat. Hala ere, informadorearena baino gehiago, animadorearen lana izan da nirea.

Nola hasi zinen krosean esatari lanetan?

1963. urtea izango zen orduan. Coca-Colaren furgoneta bat etorri zen eta meta ondoan jarri zuten. Mikrofono bat zeukan furgonetak, eta hura hartuta hasi ginen lehenengo urtean. Noizean behin “Coca-Cola” hitza esango genuela hitz eman genien furgonetakoei, eta listo. Horrela hasi ginen,

eta ikusi zen zabaldu beharra zegoela hori; herritarrek eskertu zuten, eta orduan Donostiako *Altavoces Bengo*arekin hasi ginen lanean hurrengo urteetan.

Horrenbeste urte eta gero, beraz, makina bat anekdota izango duzu kontatzeko.

Bat badaukat bai gogoan. Orain urte mordo, Lerunen zapatu arratsaldean Bengoakoei musika ekipoa montatzen laguntzen ari ginela, han non agertu ziren bi motxaila karro. Han geneukan kable, bozgorailu eta gainontzeko materialarekin, berehala larritu zen bat baino gehiago, zerbait lapurtuko ote zuten-edo. Nik ordea, motxaila nagusiarengana jo, eta gaua ea bertan pasa behar zuten galdetuta, gauza guzti horiek zaintzeko eskatu nion. Listo. Markina inguruan akaso faltako ziren pare bat unxi hurrengo egunean, baina guk ez genuen ezer faltan botako!

Zer zen lan hartan zailena?

Zailena denen izenak, markak, eta horrek denak jakitea izaten zen. Baina tranpa bat egiten nuen. Nire alboan, beste bi pertsona ere egoten ziren. Bata Antzuolakoa, federaziokoa, kronometradorea, eta bestea kazetaria. Haiek ziren, nik ez nekien dena, albotik kontatzen zidatenak, eta eskerrak horri.

Eta errazena edo politena?

Sariak banatzea, dudarik gabe.

Lerun ala Mintxeta, Angelo?

Lerun, Lerun. Nik Mintxetari ez diot ezer kenduko eh, baina ordukoa beste zerbait zen. Orain erosoagoa bada egia esan. Baina lehen beste giro bat sortzen zen herrian. Jendea oinez etortzen zen alboko herrietatik eta behin krosa bukatuta ere, kaleak jendez betetzen ziren. Orain Mintxetara joan ezean, ez diozu igartzen krosa izan denik ere.

IMANOL URAIN, Txarridunako nagusia

**“Komon ere, esaterako,
etxean bezala sentitzen da hemen”**

Jaio zinenerako ere atleta bat baino gehiago egona izango zen Txarridunanean, ezta?

Bai, 45 urte dauzkat nik eta dagoeneko izango dira 55 urte, korrikalariak hona etortzen hasi zirenetik.

Gazte-gaztetatik izan dituzu atletak etxean orduan.

Argazki bat badaukat, txiki-txikia nintzela Mamo Wolderen besoetan, beraz pentsa!

Dagoeneko lagun ere izango dituzu bat baino gehiago.

Bai. Martin Fiz adibidez etxe-etxekoa da dagoeneko. Eta Abascal madrildarra ere makina bat urtean etorri izan zen. Behin krosa pasatuta, bazkaltzera-eta etorri izan dira. Baina

ez hemen inguruak bakarrik. Komon ere esaterako, etxean moduan sentitzen da hemen.

Zer jaten dute? Dieta zorrotza jarraitu behar izaten dute ala zure esku uzten dute jana?

Normalean pasta eta fruta asko jaten dute. Pasta hutsik jaten dute, tomaterik eta antzerakorik gabe. Eta ondoren, oilaskoa edo xerra jan ohi dute, baina asko-asko eginda, siku-siku. Gero hala ere, karrera pasatu arte oso dieta zorrotza izan arren, behin lasterketa pasatukoan lasaitzen dira zertxobait eta hartzen dute gure jatekoekin gozatzeko tarte gehiago.



Eta aurten, zenbat korrikalari izango dituzue zuenean?

Ez dakit zehazki esaten. Korrikalariak ez ezik, federaziokoa ere izango ditugu eta. Baina hori bai, etxea beteta izango dugu.

Bitxikeria edo anekdotarik?

Beno... izatez mordo bat. Nola ez ba. Urte mordo daramate gurekin. Txarriduna zaharra ere ezagutu zuten, berria orain...

Eta anekdotak, ba beno. Gogoratzen dut Debako kamarera batekin zeharo maiteminduta geratu zen korrikalari bat. Eta lehenengo Guassera joanda, mozkortuta itzuli ziren batzuk ere bai. Denetik gertatu izan da, eta denetik ikusteko prest gaude dagoeneko.

Laster iritsiko da Elgoibarrera etxeko hondakin biologikoak jasotzeko zabor edukiontzi marroia

Hasierako fasean parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute, hilaren 22rako

Etxeko hondakin biologikoak, biohondakinak, biltzeko sistema berria ezarriko du Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak: edukiontzi marroia. Eibarren eta Elgoibarren ekingo diote kanpainari, eta hasieran, bi udalerrri horietako biztanleriaren zati batek bakarrik hartuko du parte bilketan; 5.000 familiak, alegia.

Mankomunitatetik emandako datuen arabera, etxean sortzen diren biohondakinaren %43 elikagaien eta lorezaintzako lanen hondakinak dira. Horiek hondakin arruntan edukiontzira botaz gero, alferrik galzten dira, baina edukiontzi marroi berrira eramanez, konposta egingo dute. Lurra hobetzen duen substratu naturala da konposta.

Izena eman behar da

Kanpainaren hasierako fase horretan parte hartzeko interesatuek izena eman beharko dute, 943 670 249 telefonora deituta, urtarrilaren 22a baino lehen. Elgoibarren ondorengo kaleetan bizi diren bizilagunek soilik hartu dezakete parte hasierako etapen: Pedro M. Urruzuno, Artekale, San Frantzisko, Foruen Plaza, Nafarroa Plaza, Errosario kalea, San Bartolome, Antonio Arri-llaga, Aita Agirre Plaza, San Inazio kalea, Ubitarte Plaza, Trenbi-



de eta Bernardo Ezenarro.

Izena ematen duten familiei, edukiontzia-aren giltza, poltsa konpostagarriak eta ontzitxo berezi bat (hondakin-mota hori sukaldean bereizteko) emango die Debabarreneko Eskualde mankomunitateak eta edukiontzi marroian nola birziklatu behar den argitzen duen informazio-orri bat ere banatuko zaie. Urtarrilaren 22ra arte eman daiteke izena. Giltza, poltsak eta ontzitxoa, berriz, urtarrilaren 30etik aurrera banatuko dira.

Galbusoro baserriko bi ahuntzek hiruna kume izan dituzte



Idotorbe-San Pedro auzoko Galbusoro baserriko bi ahuntzek hiruna ume eduki dituzte. Hamabost egun dituzte lehenengo jaio ziren hiru kumeek, eta hamar beste hirurek. Baserritarrak adierazita-koaren arabera, espero ez zuten zerbait izan da ahuntz biek hirukiak izatea eta sorpresaz harrapatu ditu beraiek ere.

Mus txapelketako kanporaketa, hilaren 28an

Kimetz elkarteak antolatuta, urtarrilaren 28an jokatu da Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa, Lanbroa tabernan. Irabazleek, Lanbroan lau lagunentzako afaria irabaziko dute, eta txapeldunordeek bi lagunentzako afaria. Elgoibarko txapelketako irabazleek Gipuzkoako kanporaketa jokatuko dute otsailean, eta final nagusia Arbizun (Nafarroa) izango da, martxoaren 17an. Sari nagusia ez da makala izango: 3.000 euro esku dirutan, txapelak eta garaikurrak eta Euskal Herri-rik kanpora egiteko bidaia lau lagunentzat.

Parte hartu nahi duten bikoteek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta Lanbroa, Jai-Alai edo Iturri tabernetan eman dezakete izena, otsailaren 27a baino lehen. Informazio gehiago eskuratzeko, 652 777 699 (Luis) telefonora deitu daiteke.

Pertsonaia **Justo Arriola**



Gasteizko epaitegiak zazpi hilabeteko kartzela zigorra ezarri die Justo Arriola elgoibartarrari eta beste bost laguni, 2009ko urtarrilaren 17an Urbinan egindako AHTaren aurkako manifestazioaren osteko gertakariekin lotuta.

Erabaki horren aurrean, Elgoibarko AHT EZ taldeak, epaileak soilik poliziaren bertsioari jaramon egin diola salatu du. Horrekin batera gogorarazi du, poliziaren bortizkeriak basakeria bilakatu zuela protesta baketsua. Era berean, soilik Abiadura Handiko Trenaren aurrekontuaren %17 gastatu dela jakinarazi du talde ekologistak eta hori jakinda, proiektua gertzeko aukera dagoela defendatu dute.

Zenbakia **618**

618 langabetu zeuden Elgoibarren 2011. urteko abenduan, hain zuzen ere, 2010eko abenduan baino hogei gehiago. Ez da, baina, Elgoibar langabetuen kopuruan gora egin duen herri bakarra. Izan ere, Deba Barrena izan da, Gipuzkoa osoan azken urtean langabetu kopurua gehien igo zaion eskualdea. 2011 bukaeran, %14,7ko langabezia zegoen eskualdean; urtebete lehenago baino % 8,3 gehiago.

Eskualde guztian zehar, proportzioan aztertuz gero, Mutriku da egoera txarrenean dagoen herria. 304 langabetu baititu. Hiru gutxiago, 301 daude Soraluzen, 250 Deban, 1.900 Eibarren, eta aurrez esan bezala, 618.

Irudia **Karakate-Irurutzeta**

Karakate eta Irurutzeta artean kalteak sortu zituzten egurgileek mendigaina lehengoratzeko lanak hasi zituzten joan den asteburuan, Soraluzeko Udalaren eskaerari erantzunez. Morkaiko mendizale elkarteak eta Okil Beltzak taldeak egindako sakalakei erantzunez, Karakateko mendigaina lehengoratzeko lanak lehenbailehen has-teko eskatu zion Soraluzeko Udalak kalteak sortu zituen egurgileari. Karakatek Atxolinera bidean kamioien gurpilek laga zituzten arrasto sakonak berdintzeko lanak, beraz, martxan daude.



Arg.: Pil-pilean

Lapurretak saihesteko gomendioak eman ditu Udaltzaingoa

Elgoibarren halakorik gertatu ez den arren, azken aldiak lapurretak ugaritu direla-eta, horiek saihesteko gomendioak eman ditu Udaltzaingoa. Besteak beste, etxetik irtetean atea giltzarekin ixteak berebiziko garrantzia daukela adierazi dute. Era berean, atea nori zabaldu ere, kontu handiz aztertzeko gomendatu dute. Izan ere, engainua sarri erabiltzen dute lapurreta teknika moduan, bereziki adineko pertsonak bakarrik dauden etxeetan.

Azkue-San Rokeko San Bizente eguneko meza ordu bete aurreratuko da

Datorren dokeman San Bizente eguna da, eta, urtero bezala, aurten ere ospatuko dute eguna Azkue-San Roke auzoan. Alabaina, aurten Juan Mugertza krosarekin batera egokitu denez, ordubete aurreratu dute meza, eta hortaz, goizeko 10:00etan izango da. Ondoren, beti bezala auzotarrek elkarte zabaldu eta salda eta txorizoa banatuko dute gerturatzen direnen artean.

Saharara bidaltzeko janari bilketa antolatu dute

Mendebaldeko Saharara karabana solidarioa bidaltzeko kanpaina jarri dute martxan, hango bizilagunen giza eskubideen alde. Urtarrilean zehar egingo dute janari bilketa, eta ondorengo jakiak batuko dituzte: Arroza, azukrea, olio, atuna eta sardinak oliotan, lekaleak, pasta, konpresak eta helduentzako ipurzapiak. Interesatuak, Netto, Dia edo Eroski supermerkatuetan entregatu ditzakete produktuak.





Iñigo Lariz



Ainhoa Lendinez

Azkeneko idatzian elur gabezi-az kezkatuta nengoela komentatu nizun. Orduetik hona bota du zerbait, baina Pirineoan dagoen elurra ez da asko eta gainera tenperatura aldaketak direla-eta, asko gogortu da, horrek dakarren arriskuarekin. Ikusi bes-

terik ez dago azkenaldian mendi istripuekin izaten ari garen bolada. Goi-mendiak ez claude brometarako, are gutxiago Parlamentuan erreskateak ordaindu beharko ditugula onartu duten honetan. Beraien ustez, arrisku jardueraren batean arduragabekeriak jokatzeari istripuren bat izan eta erreskatatuak bagara, gastua gure kontu joango omen da. Kirol hori praktikatzerakoan federatuak edo nolabaiteko segurua badugu, ordea, hau izango da erantzulea. Baina nor arduratuko da arduragabetasun hori epaitzeaz? Zer da arduragabetasunez jokatzeari kirol modalitate desberdinetan?

“Zer da arduragabetasunez jokatzeari kirol modalitate desberdinetan?”

Gainera kirol arriskutsuen zerrenda bat plazaratu dute. Bertan arrisku kirol bezala ezagutzen ditugun batzuk agertzen dira, besteak beste, eskalada, eskia, gominga, surfa edo arroila jaitsiera. Kirol hauen ekintza guztiak dela-eta arriskutsuak izan daitezke, egoeraren arabera. Baina mendian egiten diren erreskateen gehiengoa (datuen arabera, %77) perretxiko bila dabilzan edo mendian galdutako pertsonak erreskatatzen burutzen dira.

Kirola maite eta bat baino gehiago praktikatzen dugunok zer egin behar dugu? Ekintza bakoitza aseguratzen digun seguru bana kontratatu? Eta zergatik ez da neurri bera onartzen errepideko istripuetarako? Ez al da arduragabea 150km/h abiadan goazela auto istripua izatea?

Kaixo, Iñi! Gai mardula gaur, eee... ba hain juxtu ere, erreskateen berria bertatik bertara ematea egokitu zitzaidan lanean. Lege horretan aipatzen diren kirol asko egia da arriskutsuak izan litezkeela. Baina baita lege horrek jasotzen ez dituen beste asko ere: auto-rallyak, zaldi lasterketak...

Bestetik, zuk esan duzun moduan, nik ere pentsatu nuen: nork epaituko du istripu bakoitzean arduragabekeria zenbatekoa izan den? Izan ere, bizikletan atera eta kaskoa ez eramatea, arduragabekeria da. Horretan ez dago zalantzarik. Baina 4.000 metroan egonik, elur-jausi batek harrapatzen bagaitu, nork du horren erantzukizuna? Ezagutzen ditut bestalde, Araban mendatean behera bizikletan joan, eta errepidean olio zegoelako, eroriko itzela izan duten zenbait lagun. Salaketa jarri eta aldundiek entzungor egin zuten errepidean olio zegoela jakin arren. Kirolariak oso erraz epaitzen dira arduragabekeriak jokatu dutela uste denean. Aldiz, kirolariaren arduragabekeria zailtzan dagoenean, kirolaria beti kaltetun: kolpea gutxi ez eta, kalte-ordainik jaso ez.

Bestalde, zuk diozun moduan, A8an 150 km/h abiaduran aurreratzen gaituztenek euren bizia arriskuan jartzeaz gain, geurea ere jartzen dute arriskuan. Halakoetan, azkarregi gidatzeagatik istripua izan eta osasun zerbitzuren bat behar duten gidariak eurek ordaintzen dute despliege hori?

“Kirolariak oso erraz epaitzen dira arduragabekeriak jokatu dutela uste denean”

Mendiko erreskateak garestiak direla diote. Perretxikotara ateratzen direnek ez dut uste nahita galdu nahiko dutenik. Baina datuen arabera, perretxikotara joatea garestiago zaie erakundeei, Pirinioetako erreskate bat baino!



ESKERTZA

JESUS MARI ZUBIAURRE MUGERZA

2012ko urtarrilaren 14an hil zen, 81 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Erretratu zaharra



1949

Aste honetako erretratu zaharra Ines Intxaustik ekarri du BARRENERA. 1949an ateratako erretratua da, atletismoko kopa txapelketan, alegia. Domeka honetan Mugertza krosa jokatu da Mintxetan, eta egokia iruditu zaigu atletismoarekin loturiko argazki hau argitaratzea. Lerungo futbol zelai zaharrean aterata dago argazkia. Gogoratu, Mintxeta egin aurretik hantxe egiten zela Mugertza krosa bera ere. Argazki honetan ondorengoak azaltzen dira, ezkerretik eskumara: Fermin Arrese, Jose Luis Arrese, Jose Gurrutxaga eta Bizente Elkoroiribe.



ESKERTZA

IÑAKI INSAUSTI ZUBIAURRE

*Joan zara gure ondotik,
baina zure indar eta poztasuna
beti geratuko dira gure artean.
Muxu bat eta ikusi arte.*

2012ko urtarrilaren 7an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ekhi lopez

11 urte

Zenbat gezur esan dituzu azken aldian?

Nahikoa.

Kontatuko didazu txiste bat?

Hor doaz bi oliba motor gainean, eta bietako bat lurrera jausi, eta esan du: "hezurra apurtu dut". Besteak erantzun: "Beno, beno, gu oliba beteak gara, barren!".

Barre ala negar, zer egiten duzu gehiago?

Barre.

Gustura etortzen zara eskolara?

Egunaren arabera. Batzuetan besteetan baino gusturago.

Zein da irakasgaietan gustukoena duzuna?

Gimnasia.

Eta gubxien?

Matematika.

Zer egiten duzu eskolatik irteetan?

Kalean jolastu, etxera joateko ordua iritsi arte.

Egiten diezu kasu nagusien esanei?

Gehienetan bai. Baina zerbait nekagarria esaten badidate ez.

Uda ala negua, zer duzu nahiago?

Biak. Neguan ere eskiatzera joaten naiz-eta.

Ez zara aspertzen udako opor luzeetan?

Ez.

Zer egiten duzu ez aspertzeko?

Igerilekura joaten naiz.

Gogoratzen dituzu goizean, lo zaudela egindako arnestsak?

Normalean ez. Baina gogoratzen ditudanak ez dira onak izaten.

Zerbait gaineratu nahi duzu edo eskariren bat egiteko erabili tarte hau?

Bai. Irakasleei eskatu nahi diet, matematika irakasgaia kentzeko.



Txikiak baserrian

Baserrira ezagutu dute txikiak

Pedro Ortizek, Haritz Arrietak eta Gaizka Etxanizek, Atxutxiamakarekin eta Ludotekarekin elkarlanean antolatutako ekintza bati eskerrak, hainbat umek baserrira eta bertako bizimodu eta lana ezagutzeko aukera izan dute joan diren Eguberrietan.



Zer egingo zenuke ikusezina bazina?

Lucia Arriola

6 urte

Ondo pasatuko nuke.

Eta toki guztietara joango nintzateke, eta aprobetxatuko nuke normalean egiten ez ditudan gauzak egiteko.



Alaitz Landa

6 urte

Bromak egingo nizkioke jendeari. Broma desberdinak egingo nituzke eta adibidez, jendeari ura botako nioke burutik behera. Ez nindukete ikusiko, eta ondo pasatuko nuke horrela.



Jon Domingez

6 urte

Jaiotza mekanikoa itxita dagoen batean, sartuko nintzateke barrura eta dena kuxkuxeatuko nuke. Ikustea nahi dudalako, nondik jartzen duten martxan dena eta uste dudalako badakidala nola egiten duten.



Mikel La Hoz

6 urte

Txutxeak jan eta dirua hartuko nuke. Eta gero, polizia bati lapurtuko nioke bere uniforme eta porra eta txapela, eta ni neu bilakatuko nintzateke polizia, bestearen uniforme jantzita.



Markel Guenaga

6 urte

Nahi ditudan gauzak egiteko aprobetxatuko nuke. Bestela egin ezin ditudanak egiteko. Jolastu egingo nuke, gaizki portatuko nintzateke, eta gaiztakeriak egingo nituzke.



Malen Zabala

6 urte

Txutxeak hartuko nituzke dendetatik eta dirua lapurtuko nuke. Diru horrekin etxe bat erosiko nuke gero. Eta ez nuke eskolatik bidalitako etxeko lanik egingo.



JAVIER ELORZA

HISTORIALARIA

“Altzola puntu
estrategikoa
izan zen
penintsula
eta Europa
artean”



Deba ibaiari buruzko liburu bat idatzi dute Javier Elorzak eta Jose Antonio Azpiazuk, Debako Ostolaza Kultur Elkar-teak ateratako beka bati esker. Deba ibaiak XV. eta XVII. mendeetan zehar izan zuen garrantzia nabarmendu dute bereziki liburuan, eta orduko bizimoduan ibaiaren papera zein zen azaldu dute, besteak beste. Ibaian zehar, hainbat puntu nabarmendu dituzte, eta horien artean, Altzola dago. Altzola auzoak lotzen zituen penintsula eta Europa, eta garai hartako lehengaien esportazioan eta inportazioan leku klabea zen. Javier Elorza historialarekin batu da BARREN, eta gaurkoan, Elorza gidari hartuta, iraganera egingo dugu bidaia.

‘Deba, una villa de vocacion marinera y mercantil’ liburua idatzi duzue. Nondik sortu zitzaizuen lan hori egiteko ideia?

Jose Antonio Azpiazu eta nik aspalditik ezagutzen dugu elkar, eta lehenago ere egin genuen gai honi buruzko artikulu bat Donostiako Untzi Museorako. Informazio asko geneukan pilatuta, estatuko artxiboetan denbora asko ematen dugulako, eta Debako elkarteak beka hau atera zuela jakin genuenean, gai interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen, eta gure proiektua aurkeztu genuen. Aukeratu egin zuten, eta bederlatzi hilabete inguru behar izan ditugu liburua idazteko. Pozik geratu gara emaitzarekin, eta Debako kultur etxeak ere gus-tura hartu duela uste dugu.

XV. eta XVII. mendeetan kokatu duzue liburua. Zein da liburuaren ardatza?

Izenburuak dioten bezala, Deba ibaiaren marinel eta merkatal izaera jaso ditugu. Deba ibaia oso garrantzitsua zen garai hartan, eta ingurune honetan bizi zirenak fenomeno batzuk ziren. XV. mendean Atlantikoko itsasoan ibiltzeko arazorik ez zeukaten, eta dena ezagutzen zuten. Garai hartako Europako porturik garrantzitsuenen izenak euskaratu egiten zituzten, gainera: Cork, adibidez, Korta zen haientzat. Lehenengo bidaia XVI. mendean dago dokumentatuta, baina horrek ez du esan nahi lehenago bidaiatzen ez zutenik; suposatzen da baietz, aurretik ere Ternuara joaten zirela.

“Deba ibaiaren merkatal izaera XV-XVI mendeetan egon zen punturik gorenean”

Zein motatako merkantziak iristen ziren Altzolara?

Produktu eta lehengai asko etortzen ziren kanpotik. Euskal Herrian garia falta zen, eta garai hartan oso elikagai garrantzitsua zen. ‘Ogia’ deitzen zioten gariari, eta orduko elikaduran lehentasun handia zeukan. Gara-garra ere ekartzen zuten, hemengo klimarekin ezin zelako landatu. Normandia, Flan-

des edo Bretaña aldetik ekartzen zituzten horiek. Oinarrizko elikadura zerealek osatzen zuten. 1500. urtean pertsona heldu batek 75 marabedi (garai hartako txanpona) gastatzen bazituen garitan aste betean, bost gutxiago gastatzen zituen beste gutxian, hau da, 70 marabedi gastatzen zituen ardo, haragi, gatzitutako arrain eta urdaila erosten.

Jatekoa erosteaz gain, ‘pirata’ lanetan ere ibiltzen ziren, ezta?

Bai, hala da. Itsasoa oso ondo ezagutzen zuten eta iparraldera joaten ziren sarri lapurretan egitera. Korsarioak ziren zona hemengoak, eta *armadara* joaten zirela esaten zuten, harrapatzera joaten zirenean! Armagintzan abilezia handia zeukaten ingurune honetan, eta arma pila bat zituztenez, ondo hornituta joaten ziren barkuak harrapatzera. Ingalaterra alderaino joaten ziren, ez pentsa! Tona pila bat ekartzen zituzten itsasontzietan, eta hona iristean, dena saltzen zuten.

Eta, zer eramaten zuten Europa aldera hemengo itsasontziak?

Batez ere, burdina esportatzen zuten, Elgoibarko burdinolak oso preziatuak ziren-eta. Arma ere esportatzen ziren: eskudak, eta, bereziki, pikak. Garai hartako gutetan borrokatzeko pika tresna oso garrantzitsua zen.

Liburuan Altzolaren garrantzia ere nabarmentzen duzue. Zergatik?

Altzolan portua zegoen, eta lonja pila bat zeuden. Lonjetako jabeek alak (garai hartako txanelak) zituzten, eta produktuak txanel horietan garraiatzeagatik kobratu egiten zuten. Eta, ez gutxi! Altzola puntu estrategikoa izan zen Iberiar Peninsula eta Europa artean. Castilla aldetik etortzen zen artile gutxia Altzolara iristen zen errepidez, eta hemendik eramaten zuten Europara. Zakueta sartu, itsasontziak kargatu eta esportatu egiten zuten. Ardura handia zeukaten hemengo langileek, artilea edo garia bustitzen bazen ez zuelako balio. 800 edo 900 kilo eramaten zituen itsasontzi bakoitzak, eta horrek gastu asko murrizten zituen, izan ere, produktuak mandoekin garraiatzea askoz garestiagoa zen. Mando on batek 150 kilo hartu ahal zituen gehienez. Horrez gain, bideak ere ez ziren gaur egungoak, eta Altzolatik Debaraino joatea ez zen erraza. Altzola benetan garrantzitsua

izan zen garai hartako merkataritzan, eta Europako leku askotatik etortzen zen jendea hona.

Deba ibaiaren barrena Sasiolara arte nabigatzea posible da, baina hortik Altzolaraino, nola moldatzen ziren?

Oso ondo ezagutzen zuten ibaiaren ibilbidea, eta korronterik ez zegoen bazterretik nabigatzen zuten, eta arraun luze batzuk erabiltzen zituzten. Txalupak zapalak ziren, eta eurak prestatzen zuten kanaletik iristen ziren Altzolaraino. Dena dela, kontu handiz ibiltzen ziren, eta eurite handiak zirenean ez ziren txaneletan ibiltzen. Dena kalkulatuta zeukaten.

“Garai hartako elikaduran zerealak ziren osagairik garrantzitsuenak, bereziki, garia”

Nolakoa zen garai hartako bizimodua?

Jende asko bizi zen itsasotik. Elgoibarko jende askok egiten zuen lan Altzolako lonjetan eta itsasgintzan, izan ere, lonja-jabeek ontziak egin ere egiten zituzten. Galeoi batean 80 pertsona inguru behar ziren lanerako, eta familia asko bizi ziren jarduera horretatik. Gizonak kanpoan egoten ziren bitartean, emakumeak ere lan egiten zuten: oihalgintzan edota ogia egiten jarduten zuten emakumeek.

Noiz eta nola etorri zen Deba ibaiaren merkatal izaeraren gainbehera?

XVII. mende hasieran hasi zen gainbehera. Austria etxeko monarkiak hartu zuen boterea, eta egoera izugarri gogortu zen. Guda asko egon ziren, eta hemengo itsasontziak ere joaten ziren gerrara. Frantsesek eta Europako beste hainbat herrialdek ere indarra hartu zuten eta konpetentzia gero eta handiagoa zen. Gerora, XVIII. mende inguruan, errepideak ere asko hobetu ziren, eta trenbidea sortu zutenean ibaia garrantzia galtzen hasi zen. Deba ibaiaren merkatal izaera XV-XVI mendeetan egon zen punturik gorenean.

Zigilu erakusketa eta musika kontzertuak izan dira San Anton jaietako protagonistak

Zigilu erakusketa hilaren 22ra arte egongo da zabalik

Amaitu dira San Anton jaiak, eta, besteak beste, zigilu erakusketa eta musika kontzertuak ekarri dizkigu aurten Elgoibarko patroiak. Martitzenean izan zen San Anton Eguna, urtarrilaren 17an. Goizez, Emudafek antolatutako kontzertua izan zen Herriko Antzokian, eta arratsaldean erraldoi eta buruhandien kalejirak alaitu zituen kaleak. Etxeko txikienek ere, ederki gozatu zuten Plaza Handian jarri zituzten puzgarrietan.

Ikastola, zigilu erakusketan


Elgoibarko Ikastolak 50 urte beteko ditu aurten, eta Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak berari eskaini dio aurtengo zigilu erakusketa. Zapatuan egin zuten inaugurazioa, eta besteak beste, Itziar Ajuria Ikastolako lehenengo andereñoa eta Felix Etxeberria Ikastolaren



sortzaileetako bat omendu zituzten. Zigilu erakusketa hilaren 22ra arte egon-

go da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketan gelan.

‘Contra el viento del norte’ antzerkia eskainiko du Tanttaka teatroak gaur, Herriko Antzokian



Tanttaka Teatroak *Contra el viento del norte* antzezlanaren taularatuko du gaur, Herriko Antzokian. Daniel Glataurren eleberrian oinarritutako antzezlanaren da. Eguneroko bizitzan, baina al dago mundu birtuala baino leku hoberik sekretuak gordetzeko? Akats baten ondorioz, Emmi izeneko neska baten mezua jasoko du Leo Leike-k, eta erantzun egingo dio. Emmik berriz idatziko dio, eta haien arteko harreman birtuala sortuko da. Badirudi elkar eza gutuko dutela, baina egun hori atzeratu egingo da. Itziar Atienza, Joseba Apaolaza eta Kike Diaz de Rada izango dira aktoreak. Antzerkia 20:30ean hasiko da, eta sarrerak Kutxanet bidez erosi daitezke.

Argentinako euskarari laguntzeko kanpaina

Buenos Aireseko Euskaltzaleak euskara elkarteak egoitza berria behar du, eta horretarako, *Teila bat Argentinako euskararentzat* kanpaina jarri dute martxan. 20, 50 eta 100 euroko bonoak jarri dituzte salgai, eta laguntzen dieten guztien izen-abizenak jarriko dituzte egoitza berrian. Euskaltzaleak elkartearen 1944an sortu zen Buenos Airesen, Argentinan euskara eta euskal kultura mantendu, irakatsi eta zabaltzeko helburuarekin. Kanpaina honetan hartzeko interesatuek Elgoibarko Izarra kultur elkartearekin jarri daitezke harremanetan, 943 741 626 telefonoan edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzita.

'Esne Beltza sound system' taldeak kontzertua eskainiko du bihar, Gaztetxean

23:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrerak hiru euro balioko ditu

Gazte Asanbladak antolatuta, Esne Beltza sound system taldearen kontzertua izango da bihar, Elgoibarko Gaztetxean. Xabier Solano buru duen eta Etzakit, The Solanos, Joxe Ripiau, Izotz, Mal de Ojo, Selektah Kolektiboa eta Su Ta Gar taldeetan aritutako beste zortzi musikariz osaturiko banda da Esne Beltza. Elgoibarren, baina, ez dira denak egongo, Solano eta taldeko DJa soilik etorriko baitira. Zuriak egindako musika beltza da taldearen oinarria (soul, ska, reggae), beti ere, trikitixaren laguntzaz. Kontzertua 23:00etan hasiko da, eta sarrerak hiru euro balioko ditu.

Gazte Asanblada martxan

Gazte Asanbladak ekinean amaitu zuen 2011. urtea, eta modu berean



ekin dio 2012ari. Gabonetan hitzaldi ziklo bat antolatu zuen, eta ekonomiari buruzkoak jende asko erakarri zuen Gaztetxera. Orain dela bi aste, berriz, DJ gaua antolatu zuten, eta gaztetxea txiki geratu zen. Joan zen asteburuan,

bestalde, zazpi taldek eskaini zuten kontzertua, eta herritarrez gain, kanpoko jende asko etorri zen. Aurrerantzean ere musika eta kultura ekintzak antolatzeko asmoa dauka Elgoibarko Gazte Asanbladak.

Kongora eginiko bidaiari buruzko hitzaldia emango du Bittor Arbuluk datorren egunean

ELGOIBARTARRAK AFRIKAN

KONGO: GAUR EGUNGO EGOERA ETA ASMOAK. SITUACION Y PROYECTOS .

TOKIALUGAR : ELGOIBARKO KULTUR ETXEA
EGUNA/DIA 28-1-2012
ORDUA/HORA 20:00
HIZLARIAK/PONENTES Tomas Madinabeitia
Bittor Arbulu

Eliz Barrutiak Misionak-Misiones Diocesanas

Kongoko Errepublika Demokratikora eginiko bidaiari buruzko hitzaldia antolatu du Eliz Barrutiko Misionen taldeak datorren egunerako. Hizlaria Bittor Arbulu izango da, eta Tomas Madinabeitia apaiza izango du lagun. Kapiri herrialdean burutu duten lanari buruz hitz egingo dute; auzolanari buruz, alegia. Bidaia horretako bizipenekin batera, Kongoko egungo egoera eta etorkizunerako dituzten proiektuak kontatuko dituzte. Hitzaldia urtarrilaren 26an izango da, arratsaldeko 20:00etan hasita, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

'Hareazko ipuinak' antzezlanaren domekan

Umeentzako *Hareazko ipuinak* antzezlanaren antzezlanak taularatuko du Markelilñe taldeak domekan, Herriko Antzokian. Aita baten aldarrean barrena eginiko bidaia kontatzen du ipuinak. Bere beldurra eta obsesioa, alegia. Alabak mina du, minbizia, eta aita kezkatuta dago. Umeentzako zaila den heriotzaren eta minbiziaren gaia lantzen du antzezlanak, umorez, normaltasunez eta itxaropen ikuspuntuarekin. Antzerkia 16:30ean hasiko da.



Nazioarteko atletarik onenetarikoek hartuko dute parte domekako Mugertza Krosean

Fermin Arrese eta Iñaki Almandoz omenduko dituzte bihar, urteetan eginiko lanagatik

Aurten ere nazioarteko atletarik onenetarikoak izango dira domekan, Mintxetan, eta gizonezkoen zein emakumezkoen proba nagusietan afrikarrak dira Mugertza krosa irabazteko faborito argiak.

Gizonezkoetan, Elgoibarren hiru txapel irabazi dituen Leonard Komon kenyarrak bere alde du Mintxetako zirkuituko gorabeherak inork baino hobeto ezagutzen dituela, baina bere aurkariak ere ez dira nolana hikoak. Paul Tanui da horietako bat. 1990ean jaiotako kenyarrak Munduko kros txapelketan txapelkunorde izatea lortu zuen iaz, eta 2010ean Kenyako kros txapelketa irabazi zuen. Tanui oraindik ez da Elgoibarrera ailegatu, baina antolatzaileek garaiz etorriko den itzaropena daukate. Kontuan hartzeko beste korrikalari bat Geoffrey Kipsang da. 19 urteko kenyarrak, Italicako kros entzutetsua irabazi berri du Sevillan, Moses Kipsiro, Alberto Rop, eta Leonard Komon berari ere aurrea hartuz. Kipsang gazteak hiruga-



rren garaipena lortzeko aukera kendu zion, gainera, Italicako krosean Komon herrikideari. Hori dela-eta, bien arteko borroka demasekoa izan daiteke Elgoibarren.

Emakumeetan, bestalde, Priscah Jepleting eta Pauline Korikwiang kenyarrak eta Yimer Wude Ayalew eta Hiwot Ayalew etiopiarren arteko lehiatik irtengo da emakumezkoen lasterketa nagusiko irabazlearen izena, antolatzaileen ustez.

Fermin Arrese eta Iñaki Almandoz

Urteetan eginiko lanagatik bi lagun omenduko dituzte aurtengo Mugertza krosean: Fermin Arrese eta Iñaki Almandoz. Iaz arte krosaren antolakuntzan lagundu izan du Arresek, eta azken itzuliko kanpaia jo izan du azken edizioetan. Almandoz, bestalde, Kutzako ordezkaria izan da Mugertza krosean azken hamabi urteotan. Bihar egingo diete bi horiei omenaldia, atleten harrera ekitaldian. 19:00etan, udaletxean.

Elgoibarko pilotaririk gabe jokatuko dira San Anton txapelketako finalak



Joan zen astean jokatu zituzten San Anton pilota txapelketako bigarren finalerdiak, eta pilotari elgoibartarrek galdu egin zuten, bakoitzak bere kategorian. Nagusien kategorian, 15-2 galtzen joan ziren Arribillaga elgoibartarra eta Bolinaga. Markagailuari buelta eman zioten baina garaipenaren atarian geratu ziren, 22-21 galdu baitzuten Andreu eta Irustaren kontra. Promesetan, bestalde, Lizarralde elgoibartarrak eta Galartzak 22-16 galdu zuten Etxaniz eta Aizpurenren kontra. Finalak gaur gauean jokatu dituzte, 22:00etatik aurrera, Ikastolan. Promesetan, Etxaniz eta Aizpurua, Arrieta eta Rezustaren kontra arituko dira, eta nagusietan, Andreu eta Iruretak, Yoldi eta Diazek osatutako bikotea izangp dute aurrez aurre.

Goi mailako areto futbola izango da hilaren 25ean Olaizaga kiroldogian

Lehen mailako talde baten kontra jokatu du Concepto Egilek



Debabarrena klubak antolatuta, goi mailako areto futbol partidaz gozatzeko aukera izango da datorren eguaztenean, Olaizaga kiroldogian: Elgoibarko Concepto Egile taldeak lehen mailako Riberas de Navarra taldearen kontra jokatu du, lagunarteko partida. Areto futbolaren historian, lehen mailako talde batek Debabarrenean jokatu duen estreinako aldia izango da, eta antolatzaileentzako "ohore" bat dela adierazi du Jose Ramon Iriarte klubeko presidentek. Espainiako Ligan atsedendia dutela aprobetxatuz, Elgoibarren lagunarteko partida jokatu du talde nafarrak. 20:00etan hasiko da norgehiagoka, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, sarrera doan izango da, baina ezinbestekoa izango da sarrera bat eskuratzea kiroldogira sartzeko. 15 urtetik gorakoek euro bateko errifa bat erosi beharko dute, eta atsedendian hamar sari zozketatu dituzte.

Agertu dira CD Elgoibarren zozketaren irabazleak



Joan zen astean argitaratu genituen CD Elgoibarren gabonetako zozketaren zenbaki saridunak, eta dagoeneko, agertu dira irabazleak. Lehenengo saria Patxi Larreati tokatu zaio, eta bigarrena, Mikel Alberdiri. Zorionak!

EMAITZAK

FUTBOLA

Hernani 0 – Haundi 5 (3. maila)
 Berio 2 – Elgoibar 0 (Ohorezko erreg.)
 Elgoibar 2 – Bergara 1 (Neskak)
 Elgoibar 0 – Vasconia 2 (Kad. A)
 Elgoibar 1 – Zumaiako 2 (Kad. B)
 Elgoibar 2 – Kostkas 1 (Ohorezko inf.)
 Lagun Onak 4 – Elgoibar 2 (Aleb.)
 Lagun Onak 4 – Elgoibar 4 (Aleb. 2. urtea)

ESKU PILOTA

San Anton Txapelketa
 Arribillaga - Bolinaga 22 / Andreu - Irusta 21
 Lizarralde - Galarza 22 – Etxaniz - Aizpuru 16
Udaberi Txapelketa
 Lagunak 22 / Bergara 9
 Lagunak 10 / Tartaloetxe 22
 Lagunak 22 / Beloki 9

ARETO FUTBOLA

Erain 3 – King-Kong 3 (Jub.)
 Concepto Egile 3 – Atenea 1 (2. maila)

ESKUBALOI

Alkorta Elg. 30 – Basauri 25 (Sen. mut.)
 Tecnifuelle Elg. 24 – Kukullaga 19 (Sen. nesk.)
 Bergara 19 – Beristain Elg. 33 (Jub. mut.)
 Aiala Zarautz 30 – Lauko Elg. 23 (Jub. nesk.)
 Grupo Eibar Elg. 17 – Tekniker 47 (Kad. mut.)
 Astigarraga Elg. 24 – Amenabar 18 (Kad. mut.)
 Bankoa Elg. 24 – Eibar 10 (Inf. mut.)
 Txarriiduna Elg. 36 – Eibar 18 (Inf. mut.)
 Aloña Mendi 16 – Ikus Elg. 19 (Inf. nesk.)
 Aiala 10 – Aterpe Elg. 30 (Inf. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldogian)

Domeka, 22
 10:45 King-Kong – San Patricio
 Eguaztina, 25
 20:00 Concepto Egile – Riveras Navarra

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 21
 12:00 Elgoibar – Lazkao (Kad. A)
 16:30 Haundi – Zalla (3. maila)
Domeka, 22
 16:00 Elgoibar – Anaitasuna (Neskak)

ESKUBALOI (Kiroldogian)

Zapatua, 21
 11:15 Aterpe Elg. – Aloña Mendi (Inf. nesk.)
 12:30 Ikus Elg. – Aloña Mendi (Inf. nesk.)
 16:00 IMH Elg. – Errotaberrri (Kad. nesk.)
 17:30 Lauko Elg. – Errotaberrri (Kad. nesk.)
 19:00 Beristain Elg. – Eibar (Jub. mut.)
Domeka, 22
 9:30 Sanlo Elg. – Bergara (Aleb. mut.)

ESKU PILOTA

Barbakua, 20
San Anton pilota txapelketa (finala)
 22:00 Etxaniz-Aizpuru / Arrieta-Rezusta
 22:45 Andreu-Irureta / Yoldi-Diaz

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. Umeak zein edadetuak zaindu edo gau solteak ospitalean pasatzeko prest. Egun erdiz. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ **618 052 967**
- Haurrak zein nagusiak zaindu lan egingo nuke, orduka. Garbiketa Lanak ere egiten ditut. ☎ **676 858 210 / 943 257 217**
- Ingeles klase partikularrak ematen dira, etxez etxe. ☎ **943 744 062**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **638 338 816**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**
- Nagusiak zainduko nituzke. Euskalduna naiz. Urte askotako esperientzia daukat. ☎ **685 279 970**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen esperientzia handia daukat. ☎ **680 808 125**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteazehar. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarak egiten egingo nuke lan. ☎ **695 303 237**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarak egiten egingo nuke lan. ☎ **650 152 866**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarak egiten egingo nuke lan. ☎ **636 581 194**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarak egiten egingo nuke lan. ☎ **686 578 228**
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ **664 029 948**

- Lana behar dut: Nagusiak zaintzen, garbiketetan, zerbitzari lanetan... Edozein lan hartuko nuke. ☎ **647 175 093**
- Ingelesko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. Paperak ditut. ☎ **669 311 385 / 626 263 251**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea lan bila. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

ESKAINZA

- Sukalde laguntzailea behar da Mendaroko taberna batean lan egiteko. Goizez deitu. ☎ **943 030 150**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. Hiru logelakoa ☎ **699 813 826**

- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **636 581 194**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokagai San Roke 10ean. Hilean 75 euro. ☎ **699 409 697**

BESTELAKOAK

- Erloju bat aurkitu dut. ☎ **943 742 168**
- Gazte Asanbladak sukaldarako altzariak behar ditu. ☎ **677 898 633**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

Jarri ezazu zure publizitatea

B
BARREN
astekarian
943 743 704





• Zorionak, **Julen Blanco**, hilaren 19an urte bi bete dituzu-eta! Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Markel**, bihar urteak beteko dituzulako. Ondo pasa merendolan! Patxo bat guraso, aittitta, amama eta denon partez.



• Zorionak, **Estanis**, gaur 3 urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak **pibdioral Jo!** zenbat urte potolo! Ondo-ondo pasau zure eguna! Txoko-marubizko patxo pillia zuretzako!



• Zorionak, **Mikel**, astelehenean 9 urte egingo dituzulako. Familia-koen, eta bereziki, Anderren partez.



• Etxekoen partetik zorionak gure etxeko marisorgintxo **Laiari**, bere lehen urtebetetzean. Pa handi bat.



• Zorionak, **Oihane** printzesari hilaren 17an 5 urte egin zituelako. Etxekoen, lagunen eta anaia Asierren partez.



• Zorionak, **Aritz**, astelehenean 6 urte egin zenituelako. Etxekoen partez. Maite zaitugu.



• Aupa, **Saral** Zorionak eta muxu erraldoi bat. Ondo pasatu igandean!



• Urruti egonagatik ere, herrixak ez dio laga zure eguna ospatzari. Zorionak, santu!



• Zorionak, **aittitta Jose eta Aitor!** Batak, hilaren 12an 26 urte egin zituelako, eta, besteak 22an 92 urte egingo dituelako. Muxuak etxekoen partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

- Erretratu bakarreko agurra: 4€.
- Argazki bikoitza: 6€.
- Hirukoitza: 8€.
- Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

- Erretratu bakarreko agurra: 3 €.
- Argazki bikoitza: 5€.
- Hirukoitza: 7€.
- Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRE**neko bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Zein herrialdetan egongo da Ludo?

Jakin nahi baduzue, urtarrilaren 25ean izango duzue aukera, 17:30ean hasita



Gurasoek ere Gaztelekuan parte hartzeko aukera duzue, <http://www.gaztelekua.blogspot.com/webgunean>

20 barixakua

Antzerkia

20:30 'Contra el viento del norte'

Tantaka teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

21 zapatua

Kirola

19:00 Juan Mugertza krosa

Korrikalariei harrera egingo zaie, udaletxean.

22 domeka

Kirola

10:00 Juan Mugertza krosa

Mintxetan.

Ospakizuna

10:00 San Bizente Eguna

San Rokeko ermitan meza egongo da, eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Antzerkia

16:30 'Hareazko ipuinak'

Herriko Antzokian.

26 eguaena

Hitzaldia

20:00 'Auzolana Kapirin'

Victor Arbulu izango da hizlaria, eta Congoko Kapiri herrialdean bititako esperientzia kontatuko du. Kultur Etxeko hitzadi gelan.

27 barixakua

J/MH eguna

08:30 Jolasak

16:30 Kontzertua DKnoak

25 eguaztena

Kirola

20:00 Areto futbola

Concepto Egile - Rivera Navarra

Renovable taldearen kontra. Kiroldegian.

OKINDEGIA

18 domeka FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

20	Fernandez	Garitaonandia
21	Yudego	Yudego
22	Yudego	Yudego
23	Zabaleta	Etxeberria
24	Barrenetxea	Barrenetxea
25	Ibañez	Yudego
26	Garitaonandia	Garitaonandia

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Un metodo peligroso»

21, zapatua: 19:00/22:15

22, domeka: 19:00

23, astelehena: 21:30



«Un metodo peligroso» Zuzendaria:

David Cronenberg. Erresuma Batua, Alemania eta Kanada, 2011. 99 min. Drama. Aktoreak: Keira Knightley, Viggo Mortensen. Carl Jung psikiatra, Sigmund Freud eta Sabina Spielrein arteko sexu harremana izango da filmaren ardatza. Hirukote honi Otto Gross gaztea gehituko zaio, muga guztiak gainditzeko prest dagoen gaztea. Engainua eta sentsualitatea dira nagusi filman.

«La piel que habito»

Ongarri zinekluba

26, martitzena: 21:30



«La piel que habito» Zuzendaria:

Pedro Almodovar. Espainia, 2011. 120 min. Drama. Aktoreak: Antonio Banderas, Elena Anaya

Thierry Jonquet idazle frantziarraren Tarántula nobelan oinarrituriko filma da Almodovarren berriena. Azal inplanteetan aditua den kirurgialaria da filmeko protagonista.

MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK

- Auzer aurrekoak
- Autoikaskantza Internet bidez

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Perfilak (Administrazioa, Osakidetzak, Hezkuntza, ...)
- HABĒren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

MATRIKULALDIA

Ostialaren 10era arte

DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK

Informa zaitez eskalategian!

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

Euskara ikasteko.
Ordutegi malguak:
goizez, arratsaldez eta goizez.
Beko sistema eta diru laguntzak ditugu.

5 ARRAZOI ON UDAL EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO

- 1 Zure seme-olabei eteko lanetan laguntzea errazteko dugu.
- 2 Komunikabideak ulertzen lagundeko dugu.
- 3 Lagin berriak agingo dituzu.
- 4 Lasa eurlitzean lagunduko dugu.
- 5 Euskaraz irakurtzen eta idazten irabekiko zara.

Abantailak

- Titulo ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Ordutegi eta erbitu malguak.
- Kursoa lantzetarako bekok.
- Ekintza osagarriak.



DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa plaza, 2
20870 ELGOIBAR - Tel./Faxa: 943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

UDAL
EUSKALTEGIAK



EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

MGS

Aseguruak

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua
ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

MARIA LUISA URAIN ARAKISTAIN

Jausoro plaza 1 · 20807 Elgoibar
T/ 943 742 699 · F/ 943 741 235
murain@mgs.es

Aseguru Agente eskusiboak M006715339944W

COMLANBER S.A. izan da aurtengo urtero
bezeroen artean zozketatzen den telebistaren irabazlea.
Agustin Zabalak jaso du saria.

ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Istripu aseguruak
- Istripuak errentarekin
- Gaixotasun aseguruak
- Auto eta etxe aseguruak
- Aurretze eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- Diru inbertsioak
- * "Vida fondo" (unit link)
- * Burtza
- * Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- * PPA desgrabatze eta kapital ziurtatua



www.mgs.es

emugi!

elgoibarko
mugikortasun
iraunkorra



EMUGI. Ibilgailuak zentzuz erabiltzea

GAUR EGUN 19 BAZKIDEK PARTEKATZEN DITUGU EMUGI K ESKANTZEN DIZKIGUN BALIABIDEAK. EGIN ZAITEZ BAZKIDE, ETA ZURE BEHARRREN ARABERA ERRESERBA EZAZU. ANIMA ZAITEZ!



M. AXUN LARRAÑAGA
MEKA Lanbide Eskolako Zuzendaria

“Ekimen interesgarria, berritzailea eta etorkizun handikoa iruditu zitzaidan hasieratik Elgoibarko Udalak bultzaturiko EMUGI proiektua. Bazkide izatearekin, eta kotxe elektrikoak alokairuan erabiltzearekin, Meka Lanbide Eskolak aurrezteaz aparte, iraunkortasunari laguntzen diolakoan gaude.”



ALFREDO ETXEBERRIA
Elgoibarko Alkatea

“Partekatzea, aurrezte eta ingurumenarekiko jarrera arduratsua izatea dira EMUGI proiektuak Udalari eskaintzen dizkion onuretako batzuk.”



PREZIOA: 0,25 € 15 minutuko
BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 25 €



PREZIOA: 0,20 € 5 minutuko
BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 50 €